

Familia agurgarriak:

**Irailaren 8an** 2022-2023 ikasturtea hasiko da.

### SARRERAK ETA IRTEERAK

	TOKIA	GOIZEKO SARRERA	EGUERDIKO IRTEERA	ARRATSALDEKO SARRERA	ARRATSALDEKO IRTEERA
<b>0-1-2 urte</b>	Haur Hezkuntzako atea	7:30-9:45	Aukeratutako ordutegiaren arabera	Aukeratutako ordutegiaren arabera	Aukeratutako ordutegiaren arabera
<b>3 urte</b>	Haur Hezkuntzako atea	9:00etatik 9:15etara	12:30	14:30	16:25
<b>4 eta 5 urte</b>	Haur Hezkuntzako atea	9:00	12:30	14:30	16:25
<b>L.H.ko 1.-tik 4.era</b>	Lehen Hezkuntzako atea	9:00	13:00	14:30	16:30
<b>L.H.ko 5. eta 6. mailakoak</b>	Idazkaritzako atea	9:00	13:00	14:30	16:30

### OSTIRALEKO ETA GOIZEKO JARDUNALDIETAKO IRTEERA-ORDUTEGIA

#### JANTOKIKOAK EZ DIRENAK

HAUR HEZKUNTZA: 12:30

LEHEN HEZKUNTZA: 13:00

#### JANTOKIKOAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA: 13:30

**Ostiraleko eta goizeko jardunaldietako** autobusak ikastetxetik 13:45ean aterako dira.

### HAUR HEZKUNTZAKO SARRERAK

Ikasleak ilaretan jarriko dira eta geletara igotzeko irakasleen jarraibideen zain egongo dira.

### LEHEN HEZKUNTZAKO SARRERAK

**1.mailatik 4. mailara:** Ikasleak ilaretan jarriko dira eta geletara igotzeko irakasleen jarraibideen zain egongo dira.

**5.eta 6.mailakoak:** Ikasleak ilaretan jarriko dira eta geletara igotzeko irakasleen jarraibideen zain egongo dira.

**Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak heldu batekin sartu ahal izango dira eskola-esparrura. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera laguntzailerik gabe sartuko dira jolastokira. Laguntzaileak ez dira patioan egongo behar-beharrezkoa den denbora baino gehiago.**

### **JOLASORDUA, JANTOKIA ETA GARRAIOA**

- **JOLASORDUAK:** Astelehena, asteartea eta asteazkena 10:50etatik 11:20etara.  
Osteguna eta ostirala 11:00etatik 11:30etara.
- **HAUR-ESKOLAKO JANTOKIA (0,1 eta 2 urte):**  
Irailaren 15ean hasten da, ohitzeko aldia dela eta.
- **HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO JANTOKIA:**  
**A aukera:** irailaren 8an hasiko da jantokia. 3 urte izan ezik, irailaren 15ean hasten baita, familiaratze-aldia dela eta.  
**B aukera:** irailaren 19an hasiko da jantokia.

<b>Astelehenetik ostegunera jantokiko ordutegia</b>	<b>Ostiraleko eta goizeko jardunaldietako jantokiko ordutegia</b>
<b>3, 4 eta 5 urte:</b> 12:30etatik 13:00etara <b>Lehen Hezkuntzako 1.tik 6. mailara:</b> 13:00etik 14:30etara txandaka.	<b>3, 4 eta 5 urte:</b> 12:30etatik 13:00etara <b>Lehen Hezkuntzako 1.tik 6. mailara:</b> 13:00etik 13:45etara txandaka.

- **GARRAIOA:**  
Irailaren 8an hasiko da, 2 eta 3 urtekoentzat izan ezik, irailaren 15ean hasiko baita. Ibilbideak jasotzen dituen zirkularra irailaren 8a baino lehen bidaliko da.

### **COVID GOMENDIOAK**

Eusko Jaurlaritzak ikastetxeentzako COVID Protokoloa bertan-behera uztea erabaki du. Gure ikastetxeetan aplikatzeko gomendio batzuk helarazi dizkigu.

1. Aireztatzea, ikasgeletan airearen kalitate ona bermatzeko.
2. Txertaketari buruzko gomendioei kasu egitea.
3. Eskuak xaboiarekin egunean behin baino gehiagotan garbitzea.
4. Sintomak zaintzea eta zentrorra ez joatea sintomek behar bezala egitea eragozten badute, edozein gaixotasun arruntekin egiten dugun bezala.
5. Eskola-garraioan maskara erabiltzea (6 urtetik aurrera).

Agur bero bat.

Zuzendaritza